

Eragin txarra!

Kattin: Eee, Ximun, ez zaitugu biziki ikusten aldi honetan...

Ximun: Badakit, lagun berriak egin ditut futbol taldean, eta anitz denbora pasatzen dut haiekin...

Kattin: XABIER-en taldeaz ari zara? zernahi **ZOZOKERIA** egiten duten ergel horietaz?

Ximun: Bai, baina atseginak dira, ontsa ezagutzen direlarik...

Kattin: Menturaz, baina kasu egin behar zenuke. Denbora guzia **NAHIGABEAK** bilatzen pasatzen dute!

Ximun: Badakit... badakit... gainera, ez iezaiozula nehoi erran, baina zerbait egitea galdatu didate, eta ez dakit zinez egin behar dudan...

Kattin: A? Zer nahi dute egin dezazun?

Ximun: Egiaren errateko, bada mutiko hori, Ellande... Ez dute maite eta nahi lukete heldu den entrenamenduan nik zafraldi bat ematea... Nik ez dut deus haren kontra, eta **ez diot minik eman nahi.**

Kattin: Horrek ez du itxurarik! **ez iezaiezula kasurik egin!** Gainera, zauritzen baldin baduzu, trebatzaileak zigortuko zaitu!

Ximun: Bai, baina beldur naiz ez nautela gehiago beren taldean onartuko, errefusatzeko baldin badut...

Kattin: Alta, **egin nahi ez dituzun gauzen egitera behartzen baldin bazaituzte, ez dut ikusten zergatik behar duzun haien laguna izan...**

Ximun: Arrazoi duzu, Kattin. Ez dakit ere nola pentsatu ahal izan dudan Ellanderi gaiztakeriaren egitea, doi-doia haiekin egoten segitzeko... Ez dut haien konplize izan nahi Ellanderi kalte egiteko!

Itzulpena: Maialen Bidegain

